



**XXXXX-KO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO
XXXXX-(E)K 1720/2007 ERREGE DEKRETUAREN 92.2 ARTIKULUAN
AURREIKUSITAKO BAIMENEI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO
IRIZPENA.**

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko azaroaren 26an XXXXXko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko XXXXX-(r)en kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 EDren 92.2 artikulua honakoa xedatzen du euskarrien eta dokumentuen kudeaketarako oinarritzko segurtasun-neurriei buruz:

2.- "2. Euskarririk edo agiririk fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen kontrolpeko lokaletatik kanpora atera beharra egokitzen bada -mezu elektronikoko baten baitakoak eta/edo hari erantsitakoak barne- eta datu pertsonalak baldin badauzkate, aurretiaz, fitxategiaren erantzulearen baimena beharko da, edo segurtasun-agirian behar bezala baimendurik egon beharko du. "

1720/2007 EDren 97. artikuluan euskarrien eta dokumentuen kudeaketarako maila ertaineko segurtasun neurriak aipatzen dira. Artikulu horrek euskarrien sarrera eta irteera erregistro bat sortu behar dela dio.

XXXXXko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko administrazio organoek, datu pertsonalen fitxategien arduradunak badira, XXXXX sozietate publiko forala izendatu dute horien tratamendu-eragile. Fitxategiaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen ohiko harremanetan sartzen da datu pertsonaldun fitxategiak sartzea eta irtetea tratamenduaren arduradunaren egoitzatik tratamendu-eragilearenera eta alderantziz.

Jakin nahi dugu ea 1720/2007 EDren 92.2 artikuluan aurreikusita dagoen euskarrien irteera bat den ala tratamendu-eragilearen lokalak fitxategiaren arduradunaren kontrolpeko lokalizat jotzen diren; izan ere, tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunaren kontura tratatzen baititu datu pertsonalak.



HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Egin diguten kontsultari erantzuten saiatzeko, uste dugu komenigarria dela tratamendu-eragile bat dagoenerako segurtasun neurrien gaineko ikuspegi orokor bat izatea.

DBLOren 9.1 artikulua honakoa dio:

Fitxategiaren arduradunak, eta, hala denean, tratamendu-eragileak, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko eta baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan sartzea saihesteko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-izaerakoak hartuko ditu, teknologia-egoera, biltegiatutako datuen izaera eta datu horiek dituzten arriskuak kontuan hartuta; arrisku horiek izan daitezke gizakiaren ekintzaren zein inguru fisiko edo naturalaren ondorio..

Legearen 9.2 artikulua bigarren paragrafoak beste manu hau dakar:

“Kontratuan hizpatuko dira, berebat, lege honen 9. artikulua aipatzen dituen segurtasun-neurriak. Tratamendu-eragileak nahitaez ezarri beharko ditu halakoak.”

Lege-manu horiek zehatzago jaso dira, kontsultan esaten denez, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan.

Dekretuaren 20.2 artikulua honakoa xedatzen du:

“Tratamenduaren arduradunak zerbitzu bat eskaintzea kontratatu, eta horren baitan kapitulu honetan xedatutakoaren arabera tratatu behar badira datu pertsonal batzuk, tratamendu-eragileak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzeko beste berme badituela zainduko du hark.”

Errege Dekretuaren VIII. tituluak datu pertsonalen tratamenduetako segurtasun neurriak garatzen ditu.

Titulu horren barruko 82. artikulua segurtasun neurriei eta tratamendu-eragileari



buruzkoa da. Hona hemen:

“1.- Fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak tratamendu-eragile bati datuetara, datuen euskarrira edo datu horiek tratatzeko informazio-sistemako baliabideetara iristeko bidea ematen baldin badio, eta eragile horrek arduradunaren lokalean lan egiten badu, arduradun horren segurtasun-agirian utzi beharko du jasota hala egin duela, eta eragile horren mendeko langileek agiri horretan zehazturik dauden segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

Sarbidea urrunekoa bada, eta eragileak galarazita baldin badu datuak arduradunarenak ez beste sistema edo euskarri batzuetara eramatea, arduradun horrek hala jasota utzi beharko du eragilearen segurtasun-agirian, eta eragilearen mendeko langileek agiri horretan zehazturik dauden segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

2.- Tratamenduaren eragileak bere lokaletan lan egin behar badu eta ez fitxategiaren arduradunarenetan, segurtasun-agiri bat idatzi beharko du, erregelamendu honetako 88. artikuluan zehazturiko baldintzetan, edo lehenagotik duena osatu beharko du, eta, osatzeaz bat, fitxategia edo tratamendua eta arduraduna identifikatu beharko ditu eta baita dena delako tratamendu horretarako gehitu beharreko segurtasun-neurriak bildu ere.

3.- Edonola ere, tratamendu-eragileak datuak eskuratzeko, erregelamendu honetan aurreikusita dauden segurtasun-neurriak bete beharko dira, beti.

Azkenik, orain gehien interesatzen zaiguna aipatuko dugu, hau da, Errege Dekretuaren 88. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatiek diotena. Hona hemen:

“Datuak kanpoko besteren batek tratatu behar baditu, segurtasun-agirian zehaztu beharko da zein fitxategi tratatuko edo zein tratamendu egingo den eragile bidez, eta, era berean, enkarguaren baldintzak zein hitzarmenetan edo agiritan dauden arauturik, arduraduna nor izango den eta enkarguak noiz arte balioko duen zehaztu beharko da, berariaz.

Fitxategi edo tratamendu bateko datu pertsonalik eragilearen sistemetara bildu eta han baino tratatu behar ez denetan, arduradunak hala jasota utzi beharko du bere segurtasun-agirian. Arduradunaren fitxategi edo tratamendu guztien zati bat edo den-denak baldin badira horrela tratatzekoak, segurtasun-agiriaren ardura eragilearen esku utz daiteke, baliabide propioetan jasotako datuei dagokienean izan ezik.

Eta aurreko hori aipatzea komenigarria dela diogu, hori ikusi eta gero, zenbait ohar egin daitezkeelako.

Lehendabizi, esan behar dugu berariaz araututa daudela zein segurtasun betebeharrak (eta erantzukizun) dagokion tratamenduaren arduradunei eta zein eragileei

Bigarrenik, esan behar dugu “banaketa” hori egiteko, enkargatutako tratamendua egiteko modua hartzen dela kontuan (arduradunaren lokalean, eragilearenetan, urruneko sarbidea), eta hori esan egin behar dugu, kontsulta-idazkian bidali diguten informazioak ez duelako esaten eragileak zein modutan, nola era non egiten duen tratamendua. Beraz, aukera eta konponbide bat baino gehiago daude.



Hirugarrenik, esan behar dugu (eskatzen zaigun interpretazioa egiteko abiapuntua egokia izan daitekeelakoan) enkargua non egiten den, hau da, leku fisikoa garrantzi handiko irizpidea dela ebazteko zein diren arduradunaren betebeharrak eta erantzukizunak eta zein eragilearenak segurtasunaren esparruan. Eta ezin da beste era batera izan, artikulua oinarrian dagoena euskarrien eta dokumentuen "irteera" dagoelako, eta horrek esan nahi duelako leku batetik bestera eramaten direla.

Eta laugarrena da tratamendu-eragilea dagoenean ere segurtasun-agiriak garrantzi handia duela segurtasun-neurriak hartu eta gauzatzeko orduan. Eta hori funtsezkoa izan daiteke aztertzen ari garen kasuan, geroago arrazoituko dugunez.

II

Egin diguten galderari erantzuteko ("ea tratamendu-eragilearen lokalak fitxategiaren arduradunaren kontrolpeko lokalizat jotzen diren"), ezinbestean hartu behar da kontuan aurreko guztia. Edozelan ere auzia ondo arrazoituta dago eta horren gainean hartzen den ebazpena funtsezkoa da planteatutako ondorioetarako, 92. eta 97. artikulua aplikatu ala ez.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ere honakoa esan zuen:

Bigarrenik, zalantzan jartzen da euskarrien kudeaketa 92. artikulua araberakoa izan behar den, dokumentuak entitate bereko bulego batetik bestera eramaten direnean.

Dokumentu pertsonalak irten direla esateko, irteeran parte hartu duten pertsonak eta irteera nola egin den ikusi beharko dira; beraz, dokumentu horiek entitateko bertako pertsonak eramaten badituzte entitateko bulego batetik bestera, ezin da esan dokumentuak irten direnik. Aitzitik, zerbitzua emateko kontratatutako entitate batek kudeatzen badu irteera, orduan bete egin beharko dira 92. artikuluko betekizunak".

Irizpide hori aplikatu eta ondorioa bada eragilearen lokalak arduradunaren kontrolpeko lokalak direla, orduan esan beharko da ez dela aplikatu behar 92. artikulua finkatutakoa.

Aurreko atalaren bukaeran esaten denaren arabera, ezin da alde batera utzi alderdi fisikoa, hau da, lokala eta datuak atzitzeko modua, sistemak eta baliabideak. Gainera, irizpide hori garrantzitsua da, horren arabera banatzen direlako segurtasun arloko betebeharrak eta erantzukizunak fitxategiaren arduradunaren eta eragilearen artean. Hori hala izaten da segurtasun-agiriari dagokionez, eta alderdi horrek garrantzi handia du orain aztertzen ari garen kasuaren ondorioetarako.

Eragileak arduradunaren lokaletan egiten badu enkargua edo urruneko sarbidearen bidez heltzen bada datuetara, euskarrietara edo informazio sistemaren baliabideetara, eta ez baditu arduradunarenak ez diren sistemetara edo baliabideetara eramaten datuak, ematen du arduradunak hobeto kontrolatzen dituela segurtasun-neurriak; eta, ondorioz, ematen du "datu pertsonalak" ere hobeto kontrolatzen dituela, datuak ez direlako "ateratzen", beste era batera esatearren, arduradunaren zuzeneko kontrolpetik ez direlako irteten, nahiz eta hirugarren batek



tratatu: eragileak.

Gainera, enkargua tratamendu-eragilearen lokaletan egiten bada edo datuak eragilearen sistemetan baino ez dira jasotzen eta tratatzen, halakoetan ez da hain garbi ikusten segurtasun neurrien eta datuen gaineko kontrola, eta eragilearen esparrutik gertuago dagoela ematen du.

Horretan gain, ezin dugu begien bistatik aldendu elementu fisiko horixe dagoela interpretatzeko eskatu zaigun testuaren oinarrian ("arduradunaren kontrolpeko lokala").

Bestalde, Bulegoaren iritziz, ez da egokia 92. artikuluko 2. idatz-zatia bere aldetik eta isolatuta interpretatzea, eta uste du gomendagarriagoa dela artikulua osoa interpretatzea, gainontzeko idatz-zatiak kontuan hartuta behintzat; eta artikulua osoaren xedea aintzat hartuta (interpretazio teleologikoa).

Beraz, artikulua idatz-zati guztiak ikusita, esan daiteke artikulua asmoa dela funtsean datu pertsonaldun euskarriak eta dokumentuak irteten direnean gerta daitezkeen bidegabeko atzipenak egoteko arriskuak gutxitzea. Hala ere, ez da ahaztu behar beste helburu bat ere egon daitekeela tratamendu-eragilea dagoen kasuetarako, eta da irizpide lagungarriak jartzea, segurtasun neurriak behar bezala ez betetzeagatik erator daitezkeen erantzukizunak modu egokian banatu ahal izateko. Artikuluari izenburuari begiratzen badiogu, "kudeaketa" terminoa da bertako hitz nagusia.

Hori guzti hori kontuan hartuta, (eta Bulegoren ustez zentzuzkoa da hori ondorioztatzea) ematen du kontsultari ezin zaiola erantzun bakar bat eman, enkargua non eta nola egiten den ikusita, erantzuna ere era batekoa ala bestekoa izango da.

Beraz, enkargua arduradunaren lokaletan egiten bada edo urrutiko sarbideren baten bidez egiten bada, baina datuak eragilearen sistemetara bildu gabe eta han tratatzen ez badira, ez dirudi beharrezkoa denik arduradunaren lokaletik euskarriak irtetea eragilearen lokaletara eramateko. Eragilearen lokaletik arduradunaren lokalera egiten diren euskarri-irteerak ez dira "arduradunaren kontrolpeko lokaletatik egindako irteeratzat" joko, baldin eta arduradunaren menpeko eta titulartasunpeko langileek edo sistemek ateratzen badituzte.

Tratamendua eragilearen lokaletan egiten bada, edo datuak eragilearen sistemetan jaso eta han baino ez badira tratatzen, arduradunaren sistemen edo lokaletatik arduradunaren lokaletara egiten diren irteerek, eta alderantziz egiten direnek, fitxategiaren arduradunaren baimena behar dute nahitaez.

Eta zentzuzkoa dirudiela diogu, uste dugulako datuak eta euskarriak ondo kontrolatuta dauden bitartean —eta hori gertatzen da lehengo kasuan— sarbideek apenas izango dutela arriskurik, 92. artikuluan jasotako ikuspuntuaren arabera behintzat, nekezago gertatuko direlako "irteerak" halakoetan. Eta kontrara, datuen eta euskarrien gaineko kontrola (fisikoa, behintzat) zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta kontu handiagoz jokatu beharko du fitxategiaren arduradunak eta hobeto



kontrolatu beharko ditu aplikatu beharreko segurtasun-neurriak, batez ere baimena, halakoetan errazagoa izan daitekeelako arauak jasotzen duen zera gertatzea: "irtetea".

III

Bukatzeko, Bulegoaren ustez, interesekoak diren beste bi ohar egin behar ditugu.

Lehenengo oharra da 1720/2007 Errege Dekretuaren 97. artikuluari buruzkoa, kontsulta-idazkian artikulua hori aipatzen delako eta ez delako artikulua interpretatzeko eskatzen eta ez delako zalantzan jarri ea artikulua hori ezar daitekeen hau bezalako kasu batean.

Bulegoak uste du hori normala dela, bi artikuluen artean ez dagoelako harremanik, ez behintzat derrigorrean, eta horixe delako hain zuzen ere azpimarratu nahi duguna.

Hain zuzen ere, Bulegoaren iritziz, 97. artikulua helburua eta funtzionalitatea ez datoz beti bat 92. artikuluekin.

Hala ere, egia da zenbaitetan 97. artikulua 92. artikulua osagarria izan daitekeela, eta 92. artikulua helburuari laguntzeko dela.

Halakoetan, dokumentuak eta euskarriak irteten badira, eta dokumentu eta euskarri horiei maila ertaineko segurtasun-neurriak ezarri behar bazaizkie, baimena emateaz gain eta irteera eta sarrera jasotzeaz gain, "joan-etorria" kontrolatzen lagunduko du.

Beste batzuetan, ordea, gerta daiteke dokumentuak eta euskarriak irteteko baimenik behar ez izatea, baina sarrera eta irteera erregistroan jaso behar izatea irteera.

1720/2007 EDren 97. artikuluan ez da behin ere agertzen "lokalaren" aipamenik, eta gune fisikoari buruzkorik ere ez.

Bulegoak uste du hori gertatzen dela 97. artikulua baduelako beste helburu bat, berariazkoa, desberdina eta sendoa, 92. artikulua ez daukana, eta 92. artikulua helburua betetzen laguntzeko gaitasunarekin zerikusirik ez duena: trazabilitatea. Beste era batera esanda, euskarrien eta dokumentuen mugimenduak kontrolatzea bulego batetik bestera doazenean, nahiz eta lokalak arduradun berarenak izan.

Irizpen honetan planteatu den kasuan gertatzen dena modu grafikoan adieraz daiteke, hau da, gerta daiteke dokumentu edo euskarri batek baimenik behar ez izatea irteteko, pentsa daitekeelako ez dela fitxategiaren arduradunaren lokaletatik irteten, baina, aldi berean, dagokion erregistroan jaso behar izatea baimenduta dagoela, ez delako irteeratzat jotzen.

Hasiera batean paradoxikoa badirudi ere (hau da baimenik behar ez izatea; izan ere, izaera orokorarekin baimena neurri interbentzionistagoa baita sarrera eta irteeren erregistro hutsa egitea baino), hobeto pentsatzen jarrita, zentzuzkoa ere bada, ezen inork ez badu irteera baimendu, are beharrezkoa baita jakitea nondik egin den bidalketa eta non dagoen bidalitako euskarria edo dokumentua.

Bulegoak beste ohar bat ere egin nahi du, baina lagundu nahian, eta datu-babesaren



araudian interpretazioaren esparrutik haratago doazen konponbideak topatzeko asmoarekin egiten du, halakorik lortuz gero, segurtasun juridikoa handiagoa izango delakoan.

Hain zuzen ere, 1720/2007 EDren 92. artikuluko 2. idatz-zatiaren azken zatiari erreparatzen badiogu, aukeren artean honakoa aipatzen du: " ... edo segurtasun-agirian behar bezala baimendurik egon beharko du".

Era berean, ezin da albo batera utzi 1720/2007 EDren 84. artikulua, honakoa xedatzen baitu: "*Titulu honen bidez fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunaren eskuetan geratu diren baimenak beste batzuei eskuordetzeko aukera ere badago. Beste nor hori berariaz izendatu beharko da, eta baimena emateko gaitasuna nork duen eta nori eskuordetu zaion segurtasun-agirian zehazturik utzi beharko da. Izendapen horrek, ordea, ez du inola ere esan nahi fitxategiaren arduradunari dagokion ardura beste inoren eskuetan uzten denik.*"

Hori guzti hori 1720/2007 EDren 82. artikulua 5. eta 6. idatz-zatietan jasotako aurreikuspenekin lotu behar da; idatz-zati horietan xedatutakoaren arabera, kontsulta honetan planteatu dena bezalako kasuetan, segurtasun-agirian zehaztu beharko da zein fitxategi tratatuko den edo zein tratamendu egingo den eragile bidez.

Gainera, eragilearen sistemetan jaso eta han baino ez badira tratatzen, arduradunak eragilearen esku utz dezake segurtasun-agiriaren ardura. Halakoetan, erregelamendu honetan xedaturikoa bete beharra dela-eta, eragilearen segurtasun-agiriak balioko du.

Hori guzti hori esan dugu, —eta berretsi egin nahi dugu laguntzeko asmoz izan dela—, badagoelako irtenbide interpretatzaile hutsa ez den bestelakorik aurkitzea; eta bestelakoa izateaz gain, ez du zertan unibokoa izan. Horrelako konponbide batek, erabaki bat edo beste bat hartzeko orduan segurtasun juridiko handiagoa emateaz gain, kontsulta-eragilearen premia zehatzei hobeto egokitzeko aukera ere ematen du; izan ere, lehen aipatutako artikulua ikusirik (eta artikulua horiez gain, beste batzuk ere ekar ditzakegu, esate baterako, 86. artikulua), ematen baitu hainbestetan aipatu dugun Errege Dekretuak malgutasunez jokatzeko duela baimenekin, sistemaren zurruntasuna apur bat hautsiz eta erraztasunak emanaz erabakiak premiei egokituta hartu ahal izateko, eta enkargua hobeto egin eta burutu ahal izateko.

ONDORIOA

1.- Enkargua arduradunaren lokaletan egiten bada edo urrutiko sARBIDEREN baten bidez egiten bada, baina datuak eragilearen sistemetara bildu gabe eta han tratatzen ez badira, ez dirudi beharrezkoa denik arduradunaren lokaletik euskarriak irtetea eragilearen lokaletara eramateko. Eragilearen lokaletik arduradunaren lokalera egiten diren euskarri-irteerak ez dira "arduradunaren kontrolpeko lokaletatik egindako irteeratzat" joko, baldin eta arduradunaren menpeko eta titulartasunpeko langileek edo sistemek ateratzen badituzte.



2.- Tratamendua eragilearen lokaletan egiten bada, edo datuak eragilearen sistemetan jaso eta han baino ez badira tratatzen, arduradunaren sistemen edo lokaletatik arduradunaren lokaletara egiten diren irteerek, eta alderantziz egiten direnek, fitxategiaren arduradunaren baimena behar dute nahitaez.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko abenduaren 21ean

Iñaki Vicuña de Nicolás
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria